



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna 2010-10-07

VIII. URTEA 2.093. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Poltsa konortea galtzeraino jarri zioten Juan Carlos Besanceri

VILLABONA Besance anaiek Guardia Zibilaren eskuetan jasandako tratu txarren kontakizuna egin dute

DEIALDIA «Errepresioari STOP» esateko bihar egingo den manifestaziora joateko deia egin du AAMk 3



Matxin Labaien margolariari tolosarrari ateratako argazkia. I. TERRADILLOS

Aranburu jauregian ikusi daitezke finalera iritsi diren 40 argazkiak

TOLOSA Tolargik eta Tolosagasak egin ohi duten egutegirako irudien artean bozkatzeko unea da 4

LEIRE OLABERRIA TXIRRINDULARIA

«Olinpiar Jokoak urruti daude oraindik, baina bertan egoteko orain hasi behar zara lanean»

IKAZTEGIETA Cespa-Euskadi taldea atzean utzita Fullgas taldearekin lehiatuko da datorren astean Espainiako Pista Txapelketan 5



I. GARCIA

Urriaren 15ean hasiko da Lehen Mailako lau t'erdiko txapelketa

KIROLA Barriola, Olaetxea, Olazabal, Saralegi, Olaizola I. eta Bengoetxea VI. izango dira 7

Azaroa amaiera bitarte bidali daitezke Galtzako miken parte hartzeko lanak

IBARRA Hirugarren aldiz antolatu dute euskarazko komiki lehiaketa; ondoren erakusketa jarriko dute 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astelehenetan 08:30-20:30 / Lan-egunetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20140 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>





'Los Golden en blanco y negro' ikuskizuna eskainiko dute bihar 20:30ean Leidorren. WWW.GOLDENAPPLEQUARTET.COM

Golden Apple Quartet taldearen emanaldia bihar 20:30ean Leidorren

Kultura » Sarrerak dagoeneko salgai aurkitzen dira 15 euroren truke; HITZAK bere harpidedunen artean lau zozketatuko ditu.

ERREDAKZIOA

Musika, umorea, antzerkia eta batek daki zer aurkituko duen bihar Leidorre gerturatzen denak, 20:30etik aurrera. Golden Apple Quartet Tolosara dator. Oraingo honetan, *Los Golden en blanco y negro*

gro ikuskizuna eskainiko dute. Eduardo Errondosoro, Loyola Garmendia, Kike Ochoa eta Manuel Romanok euren birraitonen historia kontatuko dute gaurkoan, Patxi Barcoren zuzendaritzapean. «Goldenekoen birraitonak Estatu Batuetan barrena ibili zirenen elkarrekin, baita bakoitza bere aldetik ere eta makina bat abentura eta saltatan sartu zirenen. Mende balde zaharrean, Hegoalde sakonean, New York zaratsuan, Hollywood sortu berrian... 1912tik aurrera, ordea, ez dute eskutiz bidaltzen

eta inor ez daki beraien berri. Hemendik aurrera ez dago inolako aztarnarik».

Bi sarrera lortzeko aukera

Sarrerak salgai daude dagoeneko Leidorreko leihatilan (zine ordu-tegietan), eta Kutxako kanaletan. 15 euro balio dute. TOLosaldeko eta LEITZaldeko HITZA egunkariaren bidez ere, joan ahalko dute harpidedunek. Horretarako 943 65 56 95 zenbakira deitu beharko da. Irabazleek leihatilan edukiko dituzte sarrerak.

Kale araudi berria arautuz

Politika » Udalak besteak beste, kartelen eta 'pintaden' inguruko araudia onartu nahi du, herritarren laguntzarekin.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalaren Obrak, Auzo eta Mantenimenduko saila, kale garbiketarako ordenantza bat egi-

ten ari da. Besteen artean honako gaiak arautu nahi dira: «Kale garbiketa; zikinkerriaren prebentzioa; kartelak jartzeko araudia eta *pintaden* kontrola eta garbiketa».

Dokumentu honen egite prozesuan, pertsona eta kolektibo ezberdinen partaidetzarekin kontatzea gustatuko litzaioko Tolosako Udalarri. «Horretarako ziri-berro bat ere egina daukagu. Partaidetza honen bidez, edukiak kontrastatu,

ideiak eta ekarpenak jaso eta, honen edukien sozializazioa egin nahi dugu».

Horretarako, gaur, urriak 7, 20:00etan Tolosako Udalaren Pleno Aretoan bilera bat egingo dute. Irekia izango denez, herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara, euren ekarpenak egitera eta eztabaidan parte hartzera.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baseri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

LANA

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emaku-

mea behar da. Interesatuek deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Plantetako enkofratua Ulma sistema.** Karrerak, zertxak, puntalak, postetako txapak, tablerokak saltzen dira. Modu onean. 667 41 88 75.

Zumalakarregi kaleko lanen ondorioz mozketak egongo dira

Azpiegiturak

Ibilgailuentzat hainbat aldaketa egongo dira berritze lanek irauten duten bitartean.

ERREDAKZIOA

Tolosako Zumalakarregi kalea oinezkoentzat jarri nahian dabil Udala. Ondorioz, ondorengo egunetan ibilgailuentzat hainbat aldaketa aurkeztu dituzte.

Gaur, hilak 7, Paulo Rekondo kaleko sarrera itxiko dute, Zumalakarregitik ezingo da sartu beraz kale horretara. Garajeak bertan dituztenek edo lanean dabiltzanek, San Frantzisko-Laskurainetik edukiko dute sarrera. Mozketa hau Zubi Berria- Zumalakarregi 6-7 zatia konpontzeko aprobetxatuko dute.

Bihartik aurrera

Lehen zatiarekin amaitu ondoren, bihar, hilak 8, Trianguloan dauden garajeetarako zatiari ekingo diote. Honen ondorioz, San Fran-

tziskotik egokituko dute garajeetarako sarrera.

Urriaren 13an, asteazkenean, garajeetatik Trianguloarako zatiari jarriko dute galtzada. Kasu honetan, garajeetarako sarrera Zumalakarregi kaletik zabalduko dute.

Urriaren 14an, ostegunean, Zumalakarregiko bidegurutzean, San Frantziskon eta Soldadu kalean burutuko dituzte lanak. Horretarako Rondilla kalea itxi egingo dute. Garajeetarako edo lanean dabilenarentzat bakarrik zabalduko dute, zamalanak egiteko. Irteera Atadi-Solana-Naparzubitik izango omen da. Plaza Berriko garajeetatik irteteko, Rondilla atzetik edo Belatetik joan beharko dira.

Montezkueko auzotarrak berriz, gerontologiko atzetik igo beharko dira auzora. Irteera Beotibar-Lekuona Margolaria-Atadi-Solana eta Naparzubitik barrena edukiko dute.

Urriaren 15ean ere lanean ariko dira, baina trafikoa erantzat ez du ondorioz edukiko Tolosako Udaletik azaldu dutenez.

Gipuzkoako Pilota Txapelketan bikain ari da Aurrera Saiaz

Kirolak » Larunbatean, hilaren 9an, pilota partidak jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, 11:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Txapelketan aurrera jarraitzen dute Aurrera Saiazeko pilotari gehienek. Azken asteburuan 15 partida jokatu zituzten eta horietatik bederatzitan garaipena lortu zuten.

Beotibarren jokatuak partidetan,

tan, Mugika-Galarragak 22-2ko emaitza lortu zuten. Quina-Otaegik 22-17 irabazi zien Antiguako bikoteari. Narbarte-Telleteak 22-11 irabazi zuten euren lehia. Apeztexea-Senperenak 22-5 irabazi zuten eta porrota Sukia-Galarragaren eskutik etorri zen, 9-22 galdu baitzuten Behar Zanaren aurka.


Amezketan Mujikak Zazpi Iturriren aurka jokatu zuen kadete mailan, 18-4ko emaitza lortuz.

Bidarian ere hainbat partida jokatu zituzten Aurrera Saiazekoek. Galarraga-Iruretagoienak eta Balardi-Aburuzak garaipena erdietsi zuten eta Perez Albenizek 11-22 galdu zuen Mundarroko pilotariaren aurka.

Larunbatean 11:00etan

Tolosako Beotibar pilotalekuan jaialdia egongo da etzi, hilaren 9an. 11:00etatik aurrera Gipuzkoako Txapelketako partidak ikusteko aukera egongo da bertan.

Aurrera Saiazetik hiru pilotarik hartuko dute parte jaialdian. Senior mailan, banaka, Perez irtengo da kantxara. Maila berean baina binaka berriz, X. Urbietak eta Bianekek jokatu dute norgehiagoka.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Madrilerako bidean poltsa jarri bi alditan galdu zuen konortea Besancek

Villabona » Biluztu, jo, mehatxatu... egin dute denboraren nozioa galduz. Bost egunetan ez du lorik egin eta gutxi jan du.

ERREDAKZIOA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak atzo eman zituen jakitera, Juan Carlos Besance billabonatarak eta Xabier Atristainek jasan dituzten torturak. Era berean, Guardia Zibilaren eskuetan egon diren bitartean jasan dutena salatu dutaldea. Hori ekarriko du, AAMK, euskal herritarren aurkako tortura salaketa berri hauen aurrean konpromiso argiak eskatu nahi ditu: «Euskal Herrian abian den prozesu politikoa baldintzatu nahi du Espainiako Gobernuak eta amildugia eraman». Gainera «herriar, erakunde eta eragileen presioa eta lanak soilik ekarriko du errepresioa gelditzea, eta bide horretan indarrak biderkatu beharra dago» azpimarratu du.

Azken atxilotuen tortura testigantza munduko erakunde ezberdinetara eramango dituela ere jakinarazi du. Era berean, herritar guztiei dei egiten die, bihar 20:00etan Villabonako plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko.

Torturen testigantza

AAMK jakinarazitakoaren arabera, Juan Carlos Besance atxilotzeko unea «nahiko bortitza» izan zen. «Etxeko atea bota eta Juan Carlos eta bere anaia atxilotu zituzten. Hasierako unean, Guardia Zibilaren 4x4 ibilgailuan sartu zuten, eta tratua nahiko lasaia izan zen». Baina ondoren, auto batean sartu zuten eta «hortik aurrera hasi zen bost egunetz luza zuten infemia».

«Autoan zihoala buruan poltsa jarri zioten, amasarik gabe utziz, ia itotzeraino. Hiru aldiz errepikatu zituzten poltsarena, eta autoan zihoala bi aldiz galdu zuen konortea. Bere gainean salto egiten zuten Guardia Zibilek eta oihauek eta mehatxuak etengabeak ziren» azaldu dio gazte billabonatarak AAMKri.

«Madrilen galdeketa hasi ziren, abokaturik gabe eta tortura, mehatxu eta irain artean. Bost egunez begiak estalita izan ditu, eta komunikazio aldia amaitzean denboraren nozioa erabat galdua zuen», gaineratu du.

«Gerritik behera biluzten zuten eta flexioak egitera behartzen zuten, bitartean sabelean ostiko joztzen zutelarik. Manta batekin biluzten zuten, zintza batekin lotu eta eskuak goma- aparrekin lotzen zizkieten. Buruan poltsa jartzen zioten amasarik gabe utziz eta ba-



Villabonan atxilotuak izan zireneko unea. I. TERRADILLOS

rrabiletan ostikoak ematen zizkieten. Izerditan blai zegoela frigorifikoak deitzen zioten gela batetara eramaten zuten. Dardarka hasten zen, ez zuen ezer ikusten baina sekulako hotza sentitzen zuen». Era berean, «poltsa konortea galtzeraino jarri zioten, spray moduko bat bota zioten buruan eta eskue-

tan...», jarraitzen du testigantzak. «Galdeketa ahots pila bat entzuten zituen, oihauek, familiarekin etengabe mehatxuak, anaiarekin eta ilobarekin etengabe mehatxuak...».

AAM esan duenez, gazteak argi du bere anaia berari mehatxuteko helburuarekin atxilotu zute-

la. Eta argi du hasieratik bazekitela ez zuela ezer, baina hala ere hor izan zutela hiru egunez, presio bide bezala.

«Deklarazioa ikastera behartu zuten, eta deklarazio poliziala egiteko unean ikasitakoa botatzera. Bost egunez oso gutxi jan zuen, eta ez zuen lorik egin. Azken egunean erabat jota zegoen, ezin zuen gehiago, eta pixka bat lasatu zen Guardia Zibilaren jarrera».

Testigantzen pasarte osoa, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean irakurri ahal duzue.

Jesus Mari Besance

Jesus Mari Besance larunbatean utzi zuten aske eta honek ere Guardia Zibilaren esku egon zen bitartean bizitakoa kontaktu du. AAMtik jakinarazi dutenez «Madrilerako bidean mehatxuak, kolpeak eta galdeketa jasan zituen eta Madrilen lasaitu zen bere aurkako jarrera». Baina «bere ziegako atea irekita uzten zuten, beste bi atxilotuen oihauek eta tortura sesioak entzuten zituelarik».

Torturaren Aurkako Taldeak ere, gertaera «latz» hauek salatu ditu.

Ikastaroetan izena emateko azken egunak

Irura » Hilaren 13a da azken eguna eta ikastaroak 18an hasiko dira. Haur, gazte eta helduentzako eskaintza zabala dago.

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak, haur eta helduentzako ikastaro eskaintza zabala prestatu du. Ikastaroak urriaren 18an hasiko dira eta 2011ko ekaina bitarte luza izango dira. Izena emateko azken eguna, urriaren 13a izango da. Matrikulako dirua kutxako zenbakian sartu behar da. Aldiz, hilean ordaintzen diren ikastaroak irakasleari ordainduko zaizkio. Hori bai, taldeak sei pertsona baino txikiagoak badira ez da ikastaroa aurrera eramango.

Haur, gazte eta helduentzako

Helduentzako ikastaroen artean aukera zabala dago: Ehoziriak, astelehenean izango da 16:00etatik 18:00etara. Esku lanak, asteartean 16:00etatik 17:30era. Egur

taila ostegunetan izango da 17:00etatik 19:00etara. Pilates, 09:15etik 10:15era eta 20:15etik 21:15era izango da, kasu honetan, egunak oraindik zehazteko daude. Yoga, asteartean 18:30etik 20:00etara izango da. Aerobic, astelehene eta ostegunetan 15:15etik 16:15era. Mantentzeko gimnasia, astelehene eta ostegunetan 16:30etik 17:30era izango da.

Euskara ikasteko ere aukera izango da. Horretarako, Euskara zerbitzuan galdetu behar da eta bertan emango dute informazio guztia. Informatika ikastaroak egin nahi izanez gero, KZ gunean galdetu behar da.

Haur eta gazteentzako ikastaroen artean ingelesa; 10 urtetik gorako neskentzako pala, xarea (orduak zehaztu gabe daude); dantza (astelehena eta asteazkenetan); eskulanak (LH letik aurrera asteartean 17:30etik 18:30era) izango dira. Antzerkia, LH letik aurrerakoentzat, ostegunetan 18:00etatik 19:00etara eta xakea larunbatean 10:30ean hasita izango dira.



Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.



Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eria Dnle+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berrizle ezin hobea, 16 megapixeleko artekoa, software interpolazio erabiliz
- Zoom digitala, x8 argiak hantzez
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonia
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.



www.elektregalauak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukerazazu, **BIZIEUSKARAZ** berria

Erretraturik politenak hautatzeko unea

Tolosa » Aranburun ikusgai daude Tolosako egutegirako Lehiaketan parte hartu duten argazkiak, etzira arte.

INIGO TERRADILLOS

Urtero urtero Tolargik eta Tolosagask Argazki Lehiaketa antolatu ohi dute, gero irabazleekin hurrengo urteko Tolosako egutegia osatzeko helburuarekin. Bada, aurtengo lehiaketa azken txanpan sartu da, izan ere, behin argazkiak aurtezketeko epea bukatuta, epaimahaiak finalera iritsi diren 40 argazki aukeratu ditu eta horiekin erakusketa osatu du Aranburu jaurregian. Etzira arte izango dira ikusgai bertan, bisitariek euren bozka eman dezaten.

Erakusketan bertan botoa emateko orriak betez edo *tolosa-gasa.blogspot.com* helbidean dago

argazki onena hautatzeko aukera. Bozka horiek guztiak batu eta gehien dituenari sari bat emango zaio. Halaber, boto emaile guztien artean argazki kamara bat zozketatuko dute.

Lehenengoz jarri dute argazki erakusketa eta bertan bozkatzeko aukera, eta antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, «parte-hartze handia ari da izaten eta jende asko ari da etortzen erakusketa bisitatu eta bozka ematera». Ikusle eta bisitariek aukeratu dute, beraz, sari-dun bat, baina gainerakoak saritzeko ardura epaimahaiak izango du.

Sari garrantzitsuak

13 argazki sarituko dituzte. Urtebeteko argi kontsumoa dohain izango dute 6 argazki eta urtebeteko gas kontsumoa dohain beste 6 argazki. Sari berezia jasotzen duenak urtebeteko gasa eta argiaren kontsumoa doan izango du.



Erakusketan ikusgai dauden argazkietako bi.

L Laburrak

Garapen Planaren jarraipena egiteko bilera

AMEZKETA • Herriaren Garapen Planaren jarraipena egiteko herri batzarra egingo dute gaur, 20:30ean, erabilera anitzeko gelan. Azterketa bat egin ostean, diagnostikoa egin, eta beharrak eta lehentasunak aztertu eta gero, Ekintza Plana definitu zuten. Azken urtean Ekintza Planeko asmak aurrera eramantzen dituzte, eta orain prozesuari jarraipena emateko, orain arte egindako lana neurtu behar dela eta ondorengo urteetako lehentasunak zehaztu behar direla azaldu dute Udaletik. Herriar guztiak gonbidatu dituzte batzarrean ekarpenak egitera.

Abesbatza Lehiaketako bonuak salgai daude

TOLOSA • Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa hartuko du Tolosak urriaren 28tik azaaroren 1era arte. Bada, aste honetan bertan salgai jarri dituzte bertarako bonuak. Servikutxaren bidez eskuratu ahaliko dira, hau da, 943 00 12 00 zenbakian edota www.kutxa.net helbidean. Urriaren 10a izango da horretarako azken eguna.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Lauroba donostiarrak bihar izango dira Bonberenean. HITZA

Hiru kontzertu bihar eta etzi, Bonberenean

Tolosa » Natural Project eta Lauroba ariko dira bihar, eta etzi, berriz, Kerobia; 22:30ean hasiko dira zuzenekoak.

ERREDAKZIOA

Bonbereneako taula gainera hiru musika talde igoko dira asteburu honetan: Natural Project eta Lauroba bihar eta Kerobia etzi. Kontzertuak, ohi bezala, 22:30ean hasiko dira.

Natural Project talde andoaindarraren musika 80ko hamarkadako musikaren eta egungo hain-

bat musika motaren arteko nahasketa da. Urte honetako otsailean kaleratu zuten estudioko bigarren lan luzea, *Discontinuidad* izenekoak. Besteak beste, Depeche Mode taldearen telonero ere izan dira.

Lauroba donostiarrak *Egunarekin* izeneko bigarren lana aurkeztu zuten iragan martxoan. Aurrekoan bezala, amodioa eta umorea hartu dituzte ardatz lan «fresko» honetan.

Kerobia nafarrek, bestalde, Bonbereneako eszenatokian euren trilogiako azken diskoa aurkeztuko dute, *Ontziak* izenekoak. 2001 urtean sortu zen Iruñean eta pop-rock estiloa jorratzen dute.



Kortxea Doktoarearen abenturen une bat, Tolosan. HITZA

Kortxea doktoarearen abenturak ikusgai

Tolosa » Tolosa & Co merkatarien elkarteak antolatutako ikuskizuna, Zerkausian izango da, 18:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Tolosa & Co merkatari elkarteak antolatuta, larunbat honetan Kortxea Doktoarearen abenturez gozatu ahaliko da, 18:00etatik aurrera Zerkausian.

Eskualdeko Sointek ekoiztetxe-ak etxeko txikienez zako pentsatua dauden bi ikuskizun aurkeztuko ditu: *Musika Tresnen Fabrika*

eta *Berziklatze Fabrika*. Hiru pertsonaia dira protagonista: Kortxea Doktoarea, Filomena eta Koxme. Kortxea Doktoarea fabrikako lutierra da, erotu samar dago, eta gauzak asko nahasten ditu. Musika tresnak nola erabiltzen diren erakusteaz gain, dantzatu eta kantatu egiten du. Filomena, berriz, Kortxea jaunari zentzutasuna jartzan saiatzen da, eta bide batez fabrikantxukuntasuna mantendu eta instrumentuak jotzen ditu Kortxea jaunarekin batera, eta kantatu eta dantzatu ere egiten du. Azkenik, Koxme, Kortxea doktoarearen eta Filomenaren laguntzailea eta mekanikoa da.

E Elkarrizketa

LEIRE OLABERRIA Txirrindularia

«Ondo bidean, Olinpiar Jokoetarako sailkatuko naiz»

Ikaztegieta » Fullgas taldearekin lehiatuko da orain Olaberria eta lehenengo hitzordua Espainiako Pista Txapelketa du, datorren astean.

IMANOL GARCIA

Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1977) jarri da dagoeneko Londresera begira. Olinpiar Jokoak 2012an dira, baina dagoeneko prestaketei heldu beharra dago, bi urte hauetan nazioarteko txapelketetan lortzen diren puntuek erabakitzen baitute zein joango den Londresera. Helburu hori aintzat hartuta, kirolari ikaztegiatarrek taldez aldatzea erabaki du.

Talde bat sortu berri duzue aurrea begira txapelketetan parte hartzeko.

Taldea aurretik sortuta zegoen. Enpresa txiki bat dugu eta duela bi urte eta erditik talde honek Munduko Kopan parte hartzeko lizentzia du. Kontua izan da Cespa-Euskadi utzi dudala Fullgas taldearekin aritzeko.

Zein izan dira Cespa-Euskadi uztearen arrazoiak?

Txirrindulari bezala Cespan hasi naiz eta oso memento onak izan ditut, baina orain ez nengoen gustura taldean. Sailkapen olinpiar bat dut aurretik, bi urte luze, eta pentsatzen nuen ahal nuen hobekien egon behar nuela, denboraldi honetan lasai eta ondo egiteko. Munduko Kopan eta Munduko Txapelketan Espainiako selekzioarekin parte hartuko dut, baina beste edozein probetan aritzeko talde baten egitura egotea beharrezkoa da. Esaterako, datorren astean Espainiako Pista Txapelketan talde honekin parte hartuko dut.

Zertan lehiatuko zara bertan?

Orduz gain nola diren ikusi behar ditut, baina posible bada ahal dudana proba gehienetan hartuko dut parte.

Olinpiar Jokoetara begira omniun probarako ari zara prestatzen.

Aldaketak izan dira Olinpiar Jokotako probetan eta orain omniun proba da garrantzitsua. Horren baitan sei proba ezberdin daude. Horrez gain, emakumezkoetan proba berri bat jarri digute, taldekako jazarpen olinpiarrena. Hasiera batean sailkapena lortzeko asmoa dugu. Badakigu oso lan zaila izango dela hori, baina jende

gaztea dago taldean eta oso gogotsu ikusten ditut. Ikusiko dugu Europako Txapelketan zer maila ematen dugun. Egia da omniunerrako ondo etortzen zaidala proba horretan parte hartzea. Omniunmean azkartasuna behar duzu eta iraupena ere, eta gauza ezberdin asko entrenatu behar dira.

Espainiako Txapelketan lehenengo aldiz sartuko da omniun proba?

Bai, baina Munduko Txapelketan badaramatzagu azken hiru urteak proba egiten. Egia da herrialdeen aldetik apustua asko aldatu dela. Orain arte proba olinpiarra ez zenez, omniuna selekzioari bigarrenak edo hirugarrenak egiten zuten. Orain selekzio bakoitzak txirrindulari indartsuena omniunerrako gordetzen du. Probaren maila azken Munduko Txapelketan asko igo da eta sailkapen olinpiarra aurretik izanik, bi urte hauetan gehiago igoko da. Proba gogorra da, baina mementoz oso gustura ari naiz korritzen.

Esan duzun bezala, Espainiako Txapelketara taldearekin joango zara, baina Olinpiar Jokoetarako puntuagarriak diren txapelketetara Espainiako Selektzioarekin joango zara.

Agian selekzioarekin hitz eginda probaren bat nire publizitatearekin eta nire taldearekin korritu ahal nuke. Kontua da taldekako proban egongo naizela, eta horretarako selekzioarekin parte hartu behar dut. Hasiera batean hautatzailearen planak horiek dira. Pentsatzen dut taldekako lan batean parte hartzea ondo etorriko zaidala, nirea beti bakarkako lana izaten baita.

Osatu zara Giroan izandako errotatik?

Zerbikaletan mina hartu nuen eta nahiko lesio konplexuak izaten dira. Askotan hezur bat apurtzen duzunean badakizu denborapasa-tu ondoren osatzen dela. Baina egia da lepoak lanak ematen dizkidalako. Bizitzan normala egiteko nahiko osatu nintzen, baina entrenamendu gogorrak egiten hasi nintzenean gorabehera batzuk izan



I. GARCIA

nituen. Badirudi ahaztuta daudela eta ea hemendik aurrera ez dudan horrelako arazo gehiagorik.

Aurtengo denboraldiari begiratu, zer balantze egiten duzu?

Niretzako oso positiboa izan da. Munduko Pista Txapelketa domina batekin amaitu nuen martxoan eta egindako lanarekin gustura amaitu nuen. Gero errepidean aritu naiz, eta Espainiako Txapelketak ondo joan ziren. Kanpora ere atera naiz korritzera eta maila ona eman dudala uste dut, baina garbi gelditzen zait proba horiek ondo prestatzen ditudanean oraindik maila hobea goa eman dezakedala. Oraintsu izan dira errepideko Munduko Txapelketak. Pistako denboraldia orain hasten zen eta pistari lehentasuna eman diot. Oso garrantzizkoa iruditzen zait sailkapen olinpiarra lehenik eta behin bideratzea. Hurrengo urteari begira ikusiko dugu. Gauzak ondo joaten badira neguan, agian gero, udan, errepidean ere ondo aritzeko aukera du. Egia esan oso urte positiboa izan da niretzat, bai pistetan eta baita errepidean ere.

«Pena handiarekin utzi dut Munduko Txapelketa, baina nire helburuak pistan daude»

Asmoa zenuen hasiera batean errepideko Munduko Txapelketetara joateko?

Hasiera batean, Espainiako Txapelketak ondo joan zirenez, hautatzailearen planetan nengoen. Hizketan jarri ginene eta nik garbi ikusten nuen Munduko Txapelketa batera zure onenean joan be-

har zarela, ez zoaz Australiaraino paseatzera. Orain oso indartsu egonez gero, negua oso luze egin zitzaidala uste genuen, apirila oso urruti dago eta. Lehentasun batzuk markatu behar izan ditut. Pena handiarekin utzi dut Munduko Txapelketa alde batera, baina nire arretra oraingoz pistan jarri dut, nire helburu nagusiak pistan daude. Ez diot errepideari atea ixten. Pistan lanak ondo bideratzen badituz neguan, datorren uda beste denboraldi bat izango da eta ikusiko dugu zertarako prestatzen garen.

Pistan lehenengo hitzordua Espainiako Txapelketa izango da. Beste urtetan garai honetan izaten da ere?

Probak aldatu diren moduan, Espainiako Txapelketarekin ere izan dira gorabehera batzuk. Lehen otsailan edo martxoan izaten ziren. Baina kontua da azaroaren hasieran Europako Txapelketa izango dela eta agian Txapelketa horretarako postua irabazteko behar zen lehiaketaren bat. Espainiako Txapelketa Europakoaren ostean zen, baina aldatzea erabaki dute. Denei harrrapatzen digu apur bat jokoz kanpo, baina gero uste dut Europako Txapelketari begira Espainiako Txapelketa ona egitea ondo etorriko dela.

Europako Txapelketaz aparte, zer egutegi izango duzu?

Hemendik aurrera sailkapen olinpiarretako bi denboraldi hartzen dira kontuan. Denboraldi bakoitzak Europako Txapelketa bat, lau Munduko Kopa eta Munduko Txapelketa bat ditu. Sasoi bakoitzean sei lasterketa oso garrantzi-

tsu daude, beraz. Munduko Txapelketak ematen ditu puntu gehien, gero Munduko Kopak eta gero Europakoak. Mundu mailako sailkapeneko 18 aurrenetan egon behar zara eta horretaz gain, behartzen zaitu Europako herrialdeen artean lehenengo bederatzien artean egotea. Baditu bere baldintzak, baina nik uste dut gauzak ondo egiten badituz eta zorte pixka bat badut lesioekin eta errotketekin, ez dudala arazorik izan behar sailkapena lortzeko.

Zein da Munduko Kopako eta Munduko Txapelketako egutegia?

Munduko Kopa abenduan hasten da. Australian eta Kolonbian ditugu proba bana. Gero urtarrilean Pekinera joan behar dugu eta martxoan Manchesterrera. Martxoaren bukaeran Holandan Munduko Txapelketa izango dugu.

Londresera joateko bi urte falta dira. Luzezia egiten al da helburua hain urrun izatea?

Kontua da garbi izan behar duzula lehiaketa garrantzitsua bi urtera dagoela. Oraindik bertan pentsatzen jartzeko urruti dago, baina ez bazara puntuak hartzen hasten agian helburu polit hori ez duzu lortzen. Oso presente izan behar duzu bi urte barru izango direla, baina bertan egon ahal izateko lanean gogor hasi behar duzula memento honetan bertan hasita. Gero sei lehiaketa izatean, gauzak ondo hasten badira ematen dizu aukera tartean atsedean hartzeko. Okertzen badira derrigortzen zaitu proba batetik etorri eta bestera joatera, eta ez dizu aukerarik ematen proba bati uko egiteko.

Abian da III. Galtzakomik euskarazko komiki lehiaketa

Ibarra » Hiru maila izango dira: 12 urtetik beherakoena, 12 eta 18 urte artekoena eta 18 urtetik gorakoena.

ERREDAKZIOA

Hirugarren urtez Galtzaundi euskara taldeak eta Ibarra Udalak Galtzakomik euskarazko komiki lehiaketa antolatu dute.

Atzo aurkeztu zuten lehiaketa eta Naiara Roldan de Aranguitz antolatzaileak argitu zuenez, komikiak aurkezteko epea azarora amaiera bitartean egongo da zabalik eta «edozeinek parte hartu dezake».

Hiru maila izango dira, urteroko moduan: 12 urtetik behera, 12-18 urte bitartean eta 18 urtetik gora. Gaia librea izango da, baina ez da onartuko «eduki bortitz, sexista edo arrazistariak». Lehiaketan jatorrizko lanak aurkeztu behar dira eta, beti ere, euskaraz egindakoak.

Halaber, lehiaketan aurkeztu beharreko lanak jatorrizkoak izan behar dira. Ordenagailuaren bidez sortu eta tratatuak izan diren kasuan, orri bakoitzeko inpresio bat aurkeztu behar da, A-4 neurrikoa eta gutxienez 300 ppp-ko kalitatekoa. Kasu guztietan, lan bakoitzak A-4 neurriko lau orri izan ditzake gehienez. Lau orri horietan, istorio bakar bat edo hainbat istorio landu ahal dira. Lanak formatu bertikalean aurkeztu behar dira.

Euskara

Komikiak aurkeztu ahal izateko euskara hutsean egin behar dira eta pertsonaiak jatorrizkoak izan behar dira, autoreak berak eginak beraz, eta baita argitaratu gabekoak ere.

Azarora amaiera bitartean Galtzaundiren egoitzara bidali behar



Naiara Roldan de Aranguitz, Joseba Antxustegietxarte, Tomas Ugaldeberere eta Itziar Jauregi. HITZA

dira lanak (Nafarroa etorbidea 6 behea, 20400 Tolosa). Epaimahaia Galtzaundiko komikilari Joseba Antxustegietxartek, marraz-

Lanak jatorrizkoak izan behar dira eta istorio bakar bat edo hainbat istorio landu daitezke

ki bizidunen egile Juanba Berasategik, *Berriako* komikigile Iñaki Martiarena *Mattinek*, Tolosako margolari Iñaki Epeldek, Tolosako margolari Jose Luis Longaronek eta ETBko aurkezle Kike Amonarriek osatuko dute. Sarietarako, 12 urtetik beherako artean irabazle suertatzen denak komiki bilduma eta marrazketarako materiala jasoko ditu. 12 ur-

tetik 18 urte arteko irabazleak 400 euro eskuratuko ditu, eta, bigarrenak, 200 euro. Azkenik, 18 urtetik gorakoen arteko komiki hobere-naren egileak 600 euro jasoko ditu, eta, bigarrenak, 400 euro. Sari banaketa abenduaren 10ean egingo da.

Ondoko egunetan, berriaz, Galtzaundiren egoitzan jasotako lan guztiekin erakusketa egingo da Ibarra Kultur Etxean.

«Zahar nahiz gazteak»

Hain justu, aipatu lehiaketako epaimahaikide eta antolatzaile Joseba Antxustegietxartek Galtzakomik parte hartzeragobidatu ditu «zahar nahiz gazteak. Karpetatan edo kutxetan izango dituzuen komikiak atera eta norbaitek bere burmuinean ideiak eta komunikatzeko gogoak badauzka, apro-

betxa dezala une hau komikiak bidaltzeko, Galtzaundik zorion handiz hartuko ditu guztiak».

Tomas Ugaldeberere Ibarra

Abenduaren 10ean egingo dute lehiaketaren sari banaketa, Ibarra

euskara teknikariaren iritziz, berriaz, «lehiaketa honek erakusten digu euskara ez dela zaharren hizkuntza bakarrik, eguneroko kon-tuetarako ere erabili daitekeela eta komikiak horren adibide dira».

Azkenik, Itziar Jauregi Ibarra Udalako zinegotziak «Euskal Herri mailako lehiaketa izanik, aukera polita da Ibarra Udalarentzat euskarari bultzada emateko» esan zuen.

Laburrak

Iñaki Uribe izendatu dute HABEko zuzendari

VILLABONA • 2007. urtetik Villabonako PSE-EEko zinegotzi den Iñaki Uribe izendatu zuten atzo HABEko (Helduen Alfabetatze eta Bereuskalduntzerako Erakundea) zuzendari. Uribe itzultzailea da lanbidez eta 2003tik 2007ra bitartean Errenteriko Euskara zinegotzi ordezkaria izan zen eta baita udalerriko Euskara Patronatuko lehendakari ere. Villabonako zinegotziak Eugenio Mujika ordezkatuko du. Azken honek pasa den urteko ekainean hartu zuen kargua eta orain dela 20 egun eskas ikas-turte berria ere inauguratu zuen.

Euskara ikasteko diru laguntzak

ZIZURKIL • Zizurkilgo Udalak, Villabonakoarekin batera, bi herrietan bertan euskara ikasi ahal izateko saiakera berezia egin dute eta sortu diren taldeak hil honetan bertan jarriko direla martxan gogoratu dute. Era berean, ikastaro hauek diruz lagunduko dituela esan du Zizurkilgo Udalak. Ikasleek ikastaroaren amaieran eskolen %85etara joan dela frogatzen badute matrikularen %75a ordainduko diote. Era berean, Zizurkilgo Euskara Zerbitzuak antolatutako Mintzalaguna egitasmoa azaroran hasiko da. Hiru pertsonaiek osatutako taldeak izango dira: bi euskaldun berri eta euskaldun zahar bat.

Organoaren zaharberritzea finantzatzeko aitzakia

TOLOSA • Tolosako Santa Maria parrokiako arduradunek, norbaitek, organoaren zaharberritzea ordaintzeko eska batialuta, kalean horretarako dirua eskatzen ari dela jakin dute. Horiek horrela, parrokiak haue jakinarazi nahi izan du: «Parrokiak ez dio inori eman eskabide hori egiteko ahalmenik, eta eska parrokiako eliztarren artean baizik ez da egiten arri».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Eskualdeetako sei pilotari lehiatuko dira lau t'erdiko txapelketan

Pilota » Barriolak, Olaetxeak, Bengoetxea VI.ak, Saralegik, Olaizola I.ak eta Olazabalek hartuko dute parte.

ERREDAKZIOA

Atzo goizean BBKk Bilboko Elkanok kalean duen erakusketa gelan aurkeztu zuten 2010eko edizioari dagokion Lehen Mailako lau t'erdiko txapelketa. Txapelketa urriaren 15ean Urretxun hasiko da Aritz Lasa eta Stephane Lemunoren arteko partidarekin, eta abenduaren 12an, igandez amaitu, final handiarekin.

Lehiaketa honetan 20 pilotarik parte hartuko dute eta tartean, 10 Asegarcekoak eta beste horrenbeste, Aspekoak izango dira. Horien artean Tolosaldeko eta Leitzaldeko sei izango dira: Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea, Asier Olaizola, Mikel Olazabal, Mikel Olaetxea eta Ekaitz Saralegi.

Final hamaseirenetako partidak zozketaren bidez egin dira. Asegarcen aurretik, Arretxe II.a, Bengoetxea VI.a, Berasaluze VIII.a, Diaz, Lemuno, Olaetxea, Olaizola I.a, Patxi Ruiz, Saralegi, eta Urruti-



Atzo, BBKren Bilboko egoitzan aurkeztu zuten Txapelketa eta bertan izan ziren pilotari guztiak. ASEGARCE.COM

koetxeak parte hartuko dute. Aspeko parte-hartzaileak hauek dira: Aritz Lasa, Barriola, Beroiz, Gonzalez, Martinez de Irujo, Olazabal, Retegi BI, Titin III.a, Xala eta Zubieta. Honenbestez, Aspek zerrenda buruak bereganatu ditu, aurreko urtean lortutako emaitzei esker: Martinez de Irujo, Gonzala-

lez, Titin III.a eta Retegi Bi. Hala, iaz finalerdietaraino heldu zirenez final-laurdenetan hasiko dira lehian beraiek. Sebastian Gonzalez izan zen iaz irabazle, Atano III.a pilotalekuan jokaturako finalen Martinez de Irujori 18-22ko emaitzaren irabazi ostean. Iparraldera joandako lehen txapel-

izan zen iazkoa. Orain, beste hemezortzi pilotariak, azkaindarrarekin batera, honen bila joango dira.

Txapelketako aipagarrienak
Aimar Olaizola izango da baja nagusia. Goizuetakoak lau aldiz irabazi du txapela, baina aurten ezin izango du parte hartu duela bost hilabete larri lesionatu baitzen. Abel Barriolarentzat, berriz, itzuleraz izango da. Iaz, lesio batengatik, ezin izan baitzuen jokatu Txapelketa. Bestetik, aurtengonobedatetako bat Mikel Urrutikoetxearen parte-hartzea izango da. Bigarren Mailako txapelketa irabazita, onenekin aritzeko txartela lortu baitu.

Gaur, Zine Formumarekin hasita, emanaldi ugari izango dira asteburuan

Tolosa » 'Entre nosotros' eskainiko dute iluntzean; etzi 'Izarren argia' ren aurrestreinaldia izango da.

ERREDAKZIOA

Datozen egunetan eta asteburu luzeari begira, zine emanaldi ugari izango dira Leidor aretoan. Haste-ko, ohi bezala, gaur Zine Forumaren txanda izango da. Maren Alde zuzendariaren *Entre nosotros* lana eskainiko dute 19:15ean, eta 21:45ean. Bikote ezberdin baten istorioa kontatzen da bertan. Itxuraz, oso maiteminduta daude eta gustura bizi dira, baina azaleko zoriontasun horren atzean tentsio ugari daude.

Asteburuan haurrentzako bi emanaldi izango dira. Lehendabizikoa larunbatean, 17:00etan. Bertan, *The Karate Kid* filma ikusteko aukera izango da. Hurrengo egunean berriz, *Cher Ami* botako dute, euskaraz.

Larunbat gauean, 22:30ean, *Conoceras al hombre de tus sueños* filma eskainiko dute, eta igandean, 19:30ean, *Izarren argiaren* aurrestreinaldia izango da.

Astelehenean berriz, ikuslearen egunean, berriro ere *Conoceras al hombre de tus sueños* proiektututuko dute Leidorren. Saioa 20:30ean izango da.

Hurrengo egunean, 17:00etan, *The Karate Kid* filma eskainiko dute eta 19:30ean, *Conoceras al hombre de tus sueños*.

» MIKEL OLAZABAL



■ **Debuta.** 2007 - 08 - 13 (Leitza).
■ **Jokalari mota.** Aurrelaria.
■ **Palmaresa.** 2004 eta 2005ean El Diario Vasco Torneoko azpitxapeladuna. 2006an Antiguoko Torneon txapeldun. 2007ko Nafarroako Herri arteko txapelduna. 2007an Euskal Herriko txapelduna.

» ASIER OLAIZOLA



■ **Debuta.** 1996 - 04 - 13 (Elizondo).
■ **Jokalari mota.** Aurrelaria.
■ **Palmaresa.** Profesionalen, 1999 eta 2001eko Binakako txapelduna eta 2002ko Binakako txapeldunordea. Amateurretan, 1995eko Munduko Kopako txapelduna.

» OINATZ BENGOETXEA



■ **Debuta.** 2002 - 10 - 05 (Labrit, Iruñea).
■ **Jokalari mota.** Aurrelaria.
■ **Palmaresa profesional mailan.** 2008ko Eskuz Banakako Txapelduna. 2005eko Binakako Txapeldunordea izan zen. 2005eko Gabonetako Torneoko txapelduna izan zen.

» EKAITZ SARALEGI



■ **Debuta.** 2001 - 02 - 25 (Tolosa).
■ **Jokalari mota.** Aurrelaria.
■ **Palmaresa profesional mailan.** 2010eko 2. mailako binakako txapeldunordea. Amateur mailan, 1999ko El Diario Vasco Binakako Torneoko txapelduna izan zen. 1996an eta 1997an, Antiguoko Torneoa irabazi zuen.

» ABEL BARRIOLA



■ **Debuta.** 1998 - 02 - 22 (Tolosa).
■ **Jokalari mota.** Atzelaria.
■ **Palmaresa.** 2001eko lau t'erdiko txapelduna. 2002ko Buruz buruko Txapelduna. 2004, 2006ko eta 2007ko 4/1/2ko txapeldunordea. 2007ko Buruz buruko txapeldunordea. 2008ko Buruz buruko txapeldunordea.

» MIKEL OLAETXEA



■ **Debuta.** 2007 - 06 - 23 (Zarautz).
■ **Jokalari mota.** Aurrelaria.
■ **Palmaresa.** 2008ko Lau t'erdiko txapelduna. Amateur mailan, 2007ko Kluben artekoaren Txapelduna. Honez gain, Irungo Kurpil Kirolak Torneoko Txapelduna izan zen.

Liburua: **25€**
DVDa: **15€**
Liburua + DVDa: **30€**

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
943-30 43 45
harpidetza@berria.info

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

- **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeko Irakurle Taldea Mikel Antzaren *Ospitalekoak* liburuz ariko da Kultur Etxean, lehenengo solairuan, 19:30ean.
- **Tolosa.** Gourgs Blancs eta Grand Quayrat (Pirinioak) mendi irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak urriaren 15etik 17ra. Izen-ematea, elkartearen (Santa Maria 4, 943 67 56 12, 688 69 86 42, www.oargi.org).
- **Tolosa.** Harizpe jubilatutako irteera antolatu du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatuz. Izen-ematea, elkartearen.
- **Villabona.** Urriaren 30etik azaroaren 13ra, Benidormera bidaia antolatu du Biltoki jubilatutako irteera. Izen-ematea, Txermingo egoitzan asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.

Erakusketa

- **Tolosa.** *Inestable* GKO Galeriararen eskutik ikusgai, Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** *Ertza* erakusketa GKO Galerian ikusgai.
- **Tolosa.** 2011ko egutegiko Argazki Lehiaketan parte hartu dutenen erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian.

Zinema

- **Tolosa.** *Entre nosotros* filma jatorrizko bertsioan, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Taxien geltokia Trianguloa plazan

TOLOSA • Zumalakarregi, Rondilla, San Franzisko eta Soldadu kaleen arteko elkargunea berdintzeko lanetan ari dira azken egunetan. Hala, espaloiak kenduta, oinezkoentzako espazioa zabaltzea lortuko dute, ibilgailuen gehieneko abiadura orduko 30 kilometrorara mugatzearekin batera. Datorren ostiralera arte iraungo dutela lan horiek aurreikusi dute, eta ordura arte Zumalakarregi kalean zeuden taxiak Trianguloa plazara pasatu dituzte. Erabaki gabe dute oraindik gero ere bertan jarraituko duten. i.r.

A Agurrak



Zorionak!

Aupa Rosariko. Zorionak 93 urteengatik. Muxuak. Zure seme-alabak, ilobak eta txikiak: Kimetz, Laia, Enara, Xanet etra Joane.



Urte askoan!

Amona Felixa (Amezketan). Zorionak eta segi beti bezain guapa!



bi sarrera pare

Los Golden en Blanco y Negro antzezlanerako

Urriak 8 • Ostirala • 20:30etan
Tolosako Leidor Antzokian

sarrera pare bat

LAGUN ARO GBC CAJASOL

saskibalo partidarako

Urriak 10 • Igandea • 18:00ean Illunben

sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

harpidedun **TXOKA hitza**